**INGURUMENEKO TOKIKO FOROAREN BILERAREN AKTA (06-10-24)**

**ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL DE MEDIO AMBIENTE (24-10-06)**

LEHENDAKARIORDEA
FERNANDO BURZAKO, Ingurumen Zinegotzia

VICEPRESIDENTE
FERNANDO BURZAKO, Concejal de Medio Ambiente

IDAZKARIA:
ARANTZA CABEZA and.

SECRETARIA:
Dª. ARANTZA CABEZA

INGURUMEN TEKNIKARIA:
JOSU ATEKA jn.

TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSU ATEKA

INGURUMEN AHOLKULARIA:
JULEN REKONDO jn. (Ingurune)

CONSULTOR MEDIOAMBIENTAL:
D. JULEN REKONDO (Ingurune)

ETORRI DIRENAK:

DIMAS RAMOS jauna
PATXI DIAZ jauna (Ibilbide Ekologikoak)
JON GALLASTEGI jauna (Fadura Institutua)
PEDRO BARRENETXEA jauna (Aixerrotako Institutuko irakaslea)
CELIA MARAÑON andrea (Ekologistak Martxan)
JOSE ALMEIDA jauna (Getxo Enpresa eta Merkataritza)
CARMEN FELI PEREDA andrea (Getxoko Emakume Elkarteetako Kordinadora).

ASISTENTES:

D. DIMAS RAMOS
D. PATXI DIAZ (Itinerarios Ecológicos)
D. JON GALLASTEGI (Fadura Institutoa)
D. PEDRO BARRENETXEA (Profesor del Instituto de Aixerrota)
DÑA. CELIA MARAÑON (Ekologistak Martxan)
D. JOSE ALMEIDA (Getxo Empresarial y Comercial)
DÑA. CARMEN FELI PEREDA (Coordinadora de Asociaciones de Mujeres de Getxo).

Getxon, 2006ko urriaren 24an. Gaurko arratsaldeko zazpietan Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroa batzartu da, goian aipatu diren pertsonen asistentziarekin.

En Getxo, a 24 de octubre de 2006. Se reunió a las diecinueve horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados.

Gai hauek aztertu dira, ondoko emaitzarekin:

Se aborda el Orden del Día, con el siguiente resultado:

**AZTERGAIEN ZERRENDA**

**ORDEN DEL DÍA**

**1.- Ingurumeneko Tokiko Foroaren 2006ko uztailaren 4ko batzarraren akta onestea.**

**1. Aprobación del Acta de la reunión del Foro Local de Medio Ambiente celebrada el 4 de julio de 2006.**

Lehen puntu honi ekin aurretik, Carmen Feli Pereda foroko kide berriari ongi etorria egin zaio. Getxoko Emakume Elkarteen Koordinakundea ordezkatzera dator.

Antes de comenzar con este primer punto, se da la bienvenida a la nueva miembro del Foro, Carmen Feli Pereda, que representa a la Coordinadora de Asociaciones de Mujeres de Getxo..

Jarraian, akta horrentzat zuzenketa batzuk planteatu dira. Horrela, Jon Gallastegik adierazi du uztailaren 4ko batzarraren aktan berak egin zuen galdera izan zela quadek udalaren baimenik ote zuten zirkulatzeko. Galdera horrela agertzea nahi du, bere ustez aktan ez baita ondo islatzen. Bestalde, uste du Ingurumen zinegotziaren eskaintza ez dela ageri eta agertzea gura du. Eskaintza horren arabera, zinegotziak komunikabideengana joko zuen, foroak Portu Zaharreko pasealekua zabaltzearen kontrako prentsa-oharra errazago argitaratzeko; ez zuen agindutakoa bete ordea.

Seguidamente, se plantean algunas rectificaciones a dicha acta. Así, Jon Gallastegi, plantea que en el acta de la reunión del 4 de julio la pregunta que hizo él, fue si los quads tenían permiso del Ayuntamiento para circular, si se les había autorizado y, quiere que así conste, dado que cree no había quedado bien recogido. Por otra parte, considera que se ha omitido y quiere que quede recogido, el ofrecimiento que hizo el concejal de Medio Ambiente diciendo que iba a facilitar el acceso a los medios de comunicación para difundir la nota de prensa del Foro en contra de la ampliación del paseo al Puerto Viejo, y no lo hizo.

Fernando Burzako Zinegotziak, berriz, erantzun du berak kazetariekiko kontaktua lortzeko eskaintza egin zuela, baina eskaintza ez duela inola ere atzera bota.

Por su parte, el Concejal, Fernando Burzako, contesta que efectivamente él se ofreció a ponerles en contacto con los periodistas, y que en ningún momento ha declinado tal ofrecimiento.

Patxi Díazek eskatu du prentsan Portu Zaharreko obrei buruz agertu zen behin betiko dokumentua, foroak egina, aktan sar dadila. Etorri diren pertsonak ados agertu dira eskaerarekin.

Patxi Díaz solicita que se incluya el documento definitivo que apareció en la prensa en relación a las citadas obras del Puerto Viejo, elaborado por el Foro. Los asistentes se muestran conformes con la solicitud.

Era berean, foroaren uztailaren 4ko akta zuzendu behar da. Izan ere, “Ingurumeneko Tokiko Foroaren uztailaren 21eko batzarraren akta onetsi zela” dakar. Baina, batzar hartan, Iñaki Urkiza Hiri Plangintzako zinegotzia etorri zena, ez zen inolako aktarik egin. Beraz, okerra zuzendu da.

Así mismo, el Foro considera que hay que rectificar el acta del pasado día 4 de julio, ya que dice “que se aprueba el acta de la reunión del Foro Local de Medio Ambiente celebrada el 21 de julio”, cuando en realidad de ese foro, al que acudió el Concejal de Planeamiento Urbanístico, Iñaki Urkiza, no se hizo ninguna acta.; por lo cual se rectifica dicha errata.

**2. Mugikortasun Astearen Balantzea**

**2. Balance de la Semana de la Movilidad**

Josu Ateka ingurumen teknikariak esan duenez, Ingurumen Arloaren ustez Getxon “Autorik gabeko Eguna” eta Mugikortasunaren Astea positiboa izan dira, oro har, nahiz eta ibilgailu pribatuaren erabilera ez den ia murriztu urteko gainerako egunen aldean.

El Técnico de Medio Ambiente, Josu Ateka, comienza diciendo que desde el Area Municipal de Medio Ambiente el “Día sin mi coche” y la Semana de la Movilidad ha sido positiva en líneas generales en el municipio, aunque la utilización del coche privado no

Halere uste du epe luzeko sentsibilizazio eta kontzientziazio lana dela.

haya sufrido una disminución importante con respecto al resto del año. Sin embargo, considera que se trata de un trabajo de sensibilización y concienciación a largo plazo.

Bestalde, José Almeidak uste du lanegun batean ezin dela "autorik gabeko eguna" antolatu, merkatariei eta bestelako sektoreei kalte egiten dielako. Jaiegunetan egin behar da, eta komertziorik gehien dauden guneetatik kanpo. Zona alternatibo horietan ibilbideak sortzearen aldekoa da, mugikortasuna erraztuko duten jarduerekin.

Por su parte, José Almeida plantea que no se puede organizar el "Día sin coche" en día laborable, ya que causa perjuicios a los comerciantes y otros sectores; que hay que hacerlo en día festivo y evitando aquellas zonas en donde hay mayor concentración de comercios. Es partidario de crear itinerarios en esas zonas alternativas, con actividades en ellas para favorecer la movilidad.

Uste du aurten atzerapen handia egon dela, zama-lanen ordutegia murriztu egin delako, aurreko urteen aldean.

Considera que este año ha habido un retroceso dado que el horario de carga y descarga se ha reducido respecto al de años anteriores.

Foroko kide batzuk ez daude ados planteamenduarekin.

Hay miembros del Foro que no están de acuerdo con su planteamiento.

Gai honetaz galdera batzuk egin ditu: 50.000 biztanletik gorako Euskadiko udalerriak, autorik gabeko eguna ospatzen dutenak, eta horietatik zenbatetan mozten diren kaleak.

Al hilo del tema plantea una serie de preguntas: Poblaciones de Euskadi de mas de 50.000 habitantes que celebren el día sin coche y de ésas, en cuantas de ellas se realizan cortes de calles.

Udalaren ordezkariek datu horiek bilatuko dituztela erantzun diote, baina uste dute Mugikortasunaren Europako Astearekin bat egiten duten udalerriek hartu beharreko konpromisoetako bat dela hori.

Los representantes municipales se comprometen a buscarle los datos solicitados, pero tienen la idea de que es uno de los compromisos que deben adquirir los municipios que se adhieren a la semana europea de la movilidad.

Ingurumeneko Tokiko Foroak antolatu dituen Mugikortasun eta Hirigintza Bideragarriari buruzko Jardunaldiei buruz, José Almeidak uste du oso interesgarriak eta positiboak izan direla. Kontu honetan foro osoa dago ados. Asistentzia txikia izan da, baina gaur egungo egoera ikusita, normala eta balekoa. Foroko kide batzuek esan dute jardunaldien antolaketan foroko oso pertsona gutxik parte hartu dutela.

En cuanto a las Jornadas sobre Movilidad y Urbanismo Sostenible organizadas por el Foro Local de Medio Ambiente, José Almeida, considera que han sido muy interesantes y positivas. En esta cuestión está todo el Foro de acuerdo; Se considera que la asistencia ha sido escasa, aunque tal como corren los tiempos, normal y aceptable. Algunos miembros del Foro comentan que la participación del Foro en la organización de las Jornadas se ha reducido a muy contadas personas.

**3. Foroaren Lan Plana: Handikuntza, lan-egutegia, gaitegia, e.a.**

**3. Plan de Trabajo del Foro: Ampliación, calendario de trabajo, temario, etc.**

Jon Gallastegik esan du Basozaleakekin hitz egin duela. Erantzun diote ez direla foroaren batzarretara etorriko, ez dutelako horretarako jende nahikorik.

Jon Gallastegi informa que ha contactado con Basozaleak y le han dicho que no van a acudir a las reuniones del Foro, por no contar con gente para ello.

Gainera, esan du entzun duela Sendoak eta Eguzkik foroan egoteko eskatu dutela. Tramitazioa nola doan galdetu du. Ingurumen zinegotziak erantzun dio gaia ez duela ezagutzen eta informazioa bilatuko duela. Uste

También comenta que, según le han informado, Sendoa y Eguzki han pedido la entrada y pregunta cómo va la tramitación. El concejal de Medio Ambiente responde que desconoce el tema, y que se informará al

du kolektibo nahikotxo falta direla foroan eta nahi duten guztiek sartzeko aukera izan beharko luketela.
Patxi Díazek, era berean, esan du oso talde ezberdinetako jendearekin hitz egitean datzala foroaren balioa. Ez zaio inori sarrera mugatu behar talde batzuek besteek baino ordezkari gehiago izateagatik.
Bestalde, Pedro Barrenetxeak uste du oreka garrantzitsua dela foroan, esate baterako, gai batean bozketaren bidez erabakitzeko.
Ingurumen teknikariak adierazi du araudian jasotako ordezkaritzak bere zentzua baduela. Esaterako, naturalistak nahiko ordezkatuta daude. Horren aurretik, Jon Gallastegik esan du gazte jendearekin harremanetan jartzen ahalegindu beharko litzatekeela, gaztetxeko jendearekin, adibidez.

Carmen Feli Peredak adierazi du beste pertsona batekin etorri nahi lukeela. Erantzun zaio beste talderen batek ere hala egiten duela eta ez dagoela arazorik.
Dimas Ramosek esan du lan egin gura duen jendea etorri behar dela, konprometitzen dena, eta ez dadila bakarrik noizean behin etorri. Hori gainerako kideekiko errespetu falta baita.

Forora gazte taldeak etortzea garrantzitsua da. Josu Atekak esan du Gazteriako udal teknikariarekin harremanetan sartuko dela, udalerriko gazte taldeen zerrenda eskatzeko.

Celia Marañonek esan du udalak daukan elkarte-zerrenda eskuratu beharko litzatekeela eta parte hartzera gonbidatu.

Azkenik, gai honi buruz esan dute foroa talde berrientzat zabalik dagoela. Halere, talde berriek sartzeko baimena eskatu behar dute; gainera, lanerako eta konprometitzeko gogoa izan behar dute.

Foroan aztertu beharreko gaiei buruz, Carmen Feli Peredak esan du Getxo udalerrian eragina duten ingurumeneko zenbait gaik kezkatzen dutela, baina ez daki aztertu diren. Gaiak hauek dira: zarata, kaleen garbiketa, ura, ...

Pedro Barrenetxeak esan du aurten 21 Tokiko Agendan hondakinen gaia landuko dela. Beraz, foroak gaztetxoen lana indartu dezake, eta

respecto. Cree que faltan bastantes colectivos y que todos los que quieran entrar, deberían poder hacerlo.
Patxi Díaz asimismo, considera que el valor del Foro está en poder hablar con gente de muy diferentes grupos, que no hay que limitar la entrada porque haya mas representantes de unos grupos que de otros.
Por su parte, Pedro Barrenetxea opina que el equilibrio es importante en el Foro; por ejemplo a la hora de decidirse en un tema a través de una votación.
El Técnico de Medio Ambiente manifestó que la representación recogida en el Reglamento tiene su sentido y por ejemplo la parte naturalista esta ya bastante presente, tras manifestar Jon Gallastegi que había que intentar que entrara gente joven, contactar con gente del gaztetxe por ejemplo.

Camen Feli Pereda plantea que es partidaria de acudir acompañada de otra persona. Se le responde que algún colectivo así lo hace, y que no hay mayor problema.
Dimas Ramos por su parte mantiene que venga la gente que esté interesada en trabajar, pero también que se comprometa y no pase que venga solo de vez en cuando; eso supone una falta de respecto hacia el resto de los compañeros

Se comenta la importancia de que acudan al Foro grupos de jóvenes. Josu Ateka señala que se va a contactar con el Técnico municipal de Juventud, para pedirle un directorio de grupos de jóvenes en el municipio.
Celia Marañon apunta que habría que obtener el listado de asociaciones que obra en el Ayuntamiento e invitarles a participar.

Finalmente, y en relación a este tema, se viene a decir que el Foro está abierto a la entrada de nuevos grupos, aunque éstos deben pedir su entrada y estar interesados en trabajar; comprometerse.

En cuanto a posibles temas a tratar en el Foro, Carmen Feli Pereda comenta que le preocupan varios temas medioambientales que afectan al municipio de Getxo, aunque no sabe si se han tratado. Son los siguientes: El ruido, la limpieza de las calles, el agua….
Pedro Barrenetxea comenta que se va a trabajar este año en Agenda Escolar 21 el tema de los residuos, por lo que, desde el Foro

koordinatu.

podría reforzarse el trabajo de los chavales y coordinarnos

Patxi Díazek uste du gai batzuk hurrengo batzarretan aztertu beharko liratekeela: Foroak onetsitako edo balioztatutako ekintza plana eta udaleko arlo teknikoen proposamenak. Era berean, irisgarritasunaren adierazleen gaia dago. Bi gai horiek foroaren hurrengo batzarrean aztertuko dira, azaroan.
Balioztatu zen dokumentua bidaliko zaie foroko kideei.
Era berean, adierazi du Ekologistak Martxanek bere egunean aurkeztu zuen dokumentua kontuan izan beharko litzatekeela, lanerako filosofia gisa. Hurrengo batzarretan horri buruzko zerbait aurkeztuko du.
Aipatutako gaiekin jarraitu ez ezik, jardunaldiekin jarraitzea erabaki da, eta egunetik egunera sortzen diren gaiak aztertzea.

Patxi Diaz considera que hay unos temas que deberían tratarse en las próximas reuniones: El plan de acción aprobado o validado por el Foro y las propuestas de las Areas Técnicas Municipales. Así mismo, está el tema de los Indicadores de Sostenibilidad. Estos dos temas se decide que se tratarán en la próxima reunión del Foro a celebrar en noviembre.
Se va a enviar a los miembros del Foro el documento que validaron.
También plantea que el documento que presentó en su día Ekologistak Martxan habría que tenerlo en cuenta como filosofía de trabajo, y que ya presentará algo al respecto en próximas reuniones.
Además de los temas ya mencionados, se decide continuar con posibles jornadas y tratar aquellos temas que vayan saliendo en el devenir del día a día

**4.- Galderak eta eskaerak.**

- CD-en birziklajea. Josu Atekak adierazi du udaletxean edukiontziak jarriko direla. Asmoa da ikastetxeetan eta material informatikoko dendetan gehiago jartzea. Horrenbestez, enpresarekin (Cederica) harremanetan jarri gara. Proposamena da udala ardura dadila biltzeaz eta enpresak hasierako inbertsioa bere gain har dezala. Erantzuna jasotzeko zain gaude.

- Ereagako hondartza eta Algortako Portu Zaharra batzen dituen pasealekua handitzearen aurka foroak argitaratu zuen prentsa-oharraz alkateak egin zituen adierazpenak kritikatu ditu Jon Gallastegik. Ingurumeneko zinegotziari ere bere ondoeza eta dezepzioa azaldu dizkio, adierazpen horiei buruz alkateari ezer ez ziolako esan.
Edozein kasutan ere, konpromiso politikoak betetzeko exijitu nahi du, garapen bideragarria gogoan, eta ez dezatela beti betikoek irabazi.
- 21 Tokiko Agendari dagokionez, Hezkuntza Saila kritikatu du, Getxoko ikastetxeetako koordinatzaile batzuekin egin dituen aldaketengatik. Hori eta gero erabaki du eskola agendan lan ez egitea. Horren ondorioz, Ingurumeneko Tokiko Foroan eskoletako ikasleen ordezkari gisa egin behar den lana ere birplanteatu du.
- Azkenik, Jon Gallastegik galdetu du La

**4.- Ruegos y preguntas.**

- Reciclaje de CDs. Josu Ateka informa que se van a instalar en el Ayuntamiento contenedores y que la idea es instalar más en los centros educativos, así como en tiendas de material informático, por lo que, nos hemos puesto en contacto con la empresa (Cederica); la propuesta es que el Ayuntamiento se encargue la recogida y la empresa corra con la inversión inicial; estamos a la espera de recibir contestación
- Jon Gallastegi critica las manifestaciones que hizo el alcalde a la nota de prensa que publicó el Foro en contra de la ampliación del paseo que une la playa de Ereaga con el Puerto Viejo de Algorta. También muestra al concejal de Medio Ambiente su descontento y decepción por no decirle nada al Alcalde sobre dichas manifestaciones.
En todo caso quiere exigir que se cumplan los compromisos políticos, abanderando el desarrollo sostenible y que no ganen siempre los mismos.
- En relación con la Agenda Escolar 21, critica a la Consejería de Educación por los cambios que ha hecho con algunos coordinadores de centros educativos en Getxo, y que después de esto ha decidido no trabajar en la Agenda Escolar, con lo que también se replantea su trabajo en el Foro Local de Medio Ambiente, como representante que es, de los escolares..

| | |
|---|---|
| Galeako finken mugaketa nola dagoen. 2006ko urriaren 27ko buletinaren kopia aurkeztu du, 153. zenbakiduna. | - Finalmente, Jon Gallastegi pregunta cómo está el deslinde de las fincas de La Galea., aportando la copia de un boletín de fecha 27 de octubre de 2006.y nº 153. |
| Josu Atekak adierazi du udala abokatuen bidez gaia aztertzen ari dela. Oso zaila da. Ez daki zeri buruzkoa den aipatutako buletinean jasotako iragarkia. | Josu Ateka informa que el Ayuntamiento está mirando el tema a través de abogados, y que es muy complejo,desconociendo a qué se refiere el anuncio recogido en el citado boletín |
| Ekologistak Martxanek dokumentu bat aurkeztu du, aktari eransteko. | Ekologistak Martxan presentan un documento para que se adjunte |
| 21:30etan batzarra bukatutzat eman da. | A las 21:30 horas se da por finalizada la reunión. |